

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK



Gure produktua bezeroen gana iristeko modu desberdinak erabiliko ditugu; alde batetik **estrategiak**, gure produktua haiekiko interes handiena lortzeko, eta bestalde komunikazio-kanalaren bitartez haiekin kontaktuan jartzea aparte gure proiektua **merkatu-segmentuetara** iristea lortu nahi dugu, gure balio-proposamena helarazteko. Azkenekoari esker, gure bezeroekin harremanetan jartzeko aukera izango dugu eta aldi berean haiek izandako **ideak entzuteko prest** egongo gara. Gainera, haiek proposatzen dizkiguten ideak kontuan izango ditugu, zenbait aldaketa egin behar baldin baditugu. Gainera lehen aipatu dugun bezala erabiliko dugun komunikazio kanala, aplikazioan bertan jarrita egongo da link baten bidez.

Bezeroekin izango ditugun **harremanak** honelakoak izango dira; **pertzepzioa**, honekin gure hozkailuak bezeroei saldu baino lehenago, hozkailuaren zati guztiak ondo zehaztuak, finkatuak eta ondo funtzionatzen dutela zihurtatuko gara. Horrela gure bezeroek produktu landuak eta ondo eginak jasoko dituzte. Ondoren, **ebaluazioa** egingo diegu produktu guztiei, kasu honetan guk eta hozkailuak egiten dituzten enpresek ebaluazio sakonak egingo dizkiogu gure hozkailuei eta aldi berean gure aplikazioari, dena behar den bezala egoteko eta akatsarik ez egoteko.





Hirugarrena erosketa izango da, eta gure bezeroek **bi motatako erosketak** egiteko aukera izango dituzte; alde batetik, **dendara fisikoki** etortzen badira bertan erosteko aukera izango dute, baina bestalde, **on line** bidez erosteko aukera izango dute. Gainera; lehendik gure hozkailu bat erosi baldin badute aplikazioan bertan gure on line dendara sartzeko aukera izango dute eta **bertatik erosteko aukera** izango dute. Erosketa ondoren **entrega** egiteko unea iritsiko zaigu, eta baita ere bi motatako izango da, zeren gure erosleak ezin badira gure dendaraino etorri edota hozkailua ez baldin bazaie kotxean sartzen, guk izango ditugun kamioien bidez eramango dizkiegu hozkailuak etxeraino, baina bestela haiek eramango dituzte haien kotxetan.

Azkenik, salmentaren ondorengoaren kasuan hozkailua bezeroengana iristerakoan edota erosterakoan hilabete terdiko froga izango dute, hozkailua behar den bezala funtzionatzen duela ikusteko eta dena ondo dagoela zihurtatzeko.

